Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es/e

SARI-DEIALDIA

Esp. zk. CERTAMENES/2026/8

GIZARTE BERRIKUNTZAREN 2026KO SARIA

Iruñeko Udalak GIZARTE BERRIKUNTZAREN 2026ko SARIrako deia egin du, norgehiagokako araubidean, Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak (2006ko 21. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua, otsailaren 17koan) xedatzen duenarekin bat.

1.-XEDEA.-

GIZARTE BERRIKUNTZAREN 2026KO SARIA: Iruñeko herritarrek badituzte erronka eta arazo sozial eta ingurumeneko batzuk, eta gero eta erronka sozial handiagoak daude arrazoi hauengatik: eraldaketa demografikoa, gizarte-inklusioa, gizartearen zahartzea, digitalizazioa, jasangarritasuna eta herritarren partaidetza sustatzeko beharra. Horrela, bada, deialdi honen helburua da erronka eta arazo horiei gizarte-berrikuntzaren ikuspuntutik erantzuten dieten proiektuak nabarmentzea eta babestea xede duten Gizarte Berrikuntzaren Sariak ematea.

Gizartearen erronka horiei erantzuteko beharrezkoak diren aldaketak sortzen dituen proiektu, produktu, zerbitzu edo eredua saritzen da, betiere ikuspegi berritzailea eta gizartearen berritzeko eta eraldatzeko gaitasuna indartzen duen kontuan hartuta.

Hauek dira sarien helburuak:
1. Publikoki aitortzea gizarte-berrikuntzaren arloan hirian egindako ekimen nabarmenenak.
2. Herritarren eta gizarte-eragileen parte hartzea sustatzea, gizarte- eta ingurumen-erronkak eta erronka komunitarioak identifikatzeari eta horiek konpontzeari dagokienez.
3. Laguntzea tokiko eragileen artean jardunbide egokiak eta ezagutzak partekatzen.
4. Bultzatzea Iruñeko gizarte-ehuna indartuko duten lankidetza-sareak sortzen.

2.- SARI-MODALITATEAK.-

Honako sari-modalitate hau ezarri da:
Gizarte-berrikuntzaren 2026ko Saria: Lehen saria epaimahaiaren balorazio orokor altuena lortzen duen hautagaitzari emanen zaio, eta bi accesit, hurrengo balorazio orokor altuenak lortzen dituzten bi hautagaitzei.

Gainera, epaimahaiak aipamen berezi bat egiten ahalko dio, diru-zuzkidurarik gabe, haren iritziz honako arrazoi hauengatik nabarmentzen den ekimenari: izaera berritzailea, eragina, eraldatzeko gaitasuna, ongizate kolektiboari egiten dion ekarpena, lankidetza-modu berriak sortzeko gaitasuna edo sari hauen helburuaren arabera bereziki garrantzitsua den beste edozein arrazoi.

Epaimahaiak eman gabe uzten ahalko du saria, baldin eta, haren iritziz, aurkezten diren hautagaitzek ez badute merezimendu nahikorik egiaztatzen.

3.- DIRU-ZUZKIDURA.-

Deialdi honi, gehienez ere, 3.000 euro esleituko zaizkio sarietarako, Udalaren Aurrekontuko honako partida honen kargura:
85/92430/482090

Honako sari hauek ezarri dira, 2. klausulan adierazitakoaren arabera:

Honela banatzen dira sariak:

1. Gizarte-berrikuntzaren lehen saria: 1.500 eurokoa; epaimahaiaren balorazio orokor altuena lortzen duen ekimenari emanen zaio.

2. Gizarte-berrikuntzaren bi accesit: bakoitza 750 eurokoa; hurrengo balorazio orokor altuenak lortzen dituzten bi ekimenei emanen zaizkie.

Sariak ekonomikoak izanen dira eta banku-transferentzia bidez ordainduko zaizkie pertsona edo erakunde sarituei, dagokion administrazio-prozedurarekin bat.

Gainera, epaimahaiak aipamen berezi bat egiten ahalko du, oinarri hauetan aurreikusitakoarekin bat.

4.- HAUTAGAIEN BETEKIZUNAK.-

Lehiaketan parte hartzen ahalko dute Iruñeko udal-mugartean jarduten dute honako hauek:
- Legearekin bat eratuta eta dagokien erregistroetan inskribatuta dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta elkarteak (elkarteak, fundazioak eta irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko kooperatibak).
- Konponbide berritzaileak garatzen dituzten ikastetxeak eta ikerketa-taldeak.
- Herritar antolatuak, hala ekimen komunitarioetan nola gizarte-boluntariotzan, hautagaitza irabazi-asmorik gabeko erakunde edo entitate batek aurkezten duenean.

Kanpoan gelditukо dira irabazi-asmoa duten erakundeak, bai eta aurreko dirulaguntza-deialdietan Udalaren aurrekontuen kargura emandako dirulaguntza-deialdietan edo Iruñeko Udalak aurretik emandako sarietan ezarritako betebeharrak egunean ez dituztenak ere, eta, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta tributu-betebeharrak egunean ez dituzten erakundeak.

Aurkezten diren proiektu, produktu, zerbitzu, eredu edo ekimenek honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

a) Gizarte-berrikuntzaren arlokoak izatea.

b) Iruñeko ongizate kolektiboa, gizarte-kohesioa, jasangarritasuna, herritarren parte-hartzea edo bizi-kalitatea hobetzen laguntzea.

c) Berritzaileak izatea, hau da, irtenbideak, ikuspegiak, metodologiak, ereduak, produktuak, zerbitzuak, antolaketa-moduak edo horien konbinazioak txertatzea, elementu berritzaileak sartzeko edo ematen diren erantzunak nabarmen hobetzeko.

d) Teknikoki, ekonomikoki eta antolamenduaren aldetik bideragarriak izatea.

Ez da onartuko oinarrizko eskubideen edo indarrean dauden legeen aurkako jarduera diskriminatzaileak egitea dakarren proiektu, produktu, zerbitzu, eredu edo ekimenik.

Deialdi honen ondorioetarako, azken bi urteetan egin diren edo 2026an hasi diren ekimenak aurkezten ahalko dira. Ekimenak behar bezain garaturik egon beharko du, epaimahaiak bere izaera berritzailea, eragina eta oinarri hauetan ezarritako gainerako irizpideak baloratu ahal izateko.

Horren ondorioetarako, ez dira gizarte-berrikuntzatzat joko erakundearen ohiko programak edo jarduerak, gutxienez duela hiru urtetik finkatuta daudenak, hau da, 2022-2023 ikasturtetik edo aurreko

urteetatik egiten diren proiektuak, salbu eta haien ohiko garapenerako funtsezko berrikuntzak sartu badituzte.

Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan xedatutakoarekin bat, laguntza hauen izaera berezia kontuan hartuta, onuradunei aplikagarri zaizkie arau horretan ezarritako debekuak: ☒ BAI ☐ EZ

5.- ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK, tokia eta epea.-

ESKABIDEAK ERAKUNDEEK EDO HERRITAR ANTOLATUEK "AUTOHAUTAGAITZA" GISA AURKEZTU BEHARKO DITUZTE, HEZKUNTZAKO, HERRITARREN PARTAIDETZAKO ETA EUSKARAKO ALORRARI ZUZENDUTA.

HAUTAGAITZAREKIN BATERA, HONAKO HAUEK AURKEZTU BEHARKO DIRA:
- O ESKABIDE-ORRIA (I. ERANSKINA).
- O PROIEKTUAREN EDO EKIMENAREN MEMORIA (II. ERANSKINA).
- O ERAKUNDE EDO TALDE ESKATZAILEAREN EGIAZTAGIRIAK.
- O AURKEZTUTAKO GIZARTE-BERRIKUNTZA HEDATZEKO BAIMEN ZIURTATUA. (I. ERANSKINA).

Parte hartzeko eskaera helbide honetara bideratuko da:
Iruñeko Udaleko Erregistro Elektronikoa (https://sedeelectronica.pamplona.es/).
Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako bideetako edozein erabiltzen ahalko da.

Eskabideak aurkezteko epea deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den unetik aitzina hasiko da, eta 15 egun naturalekoa izanen da.

Saririk jasotzen ez duten lanak Udalaren bulegoetan berreskuratzen ahalko dira, ebazpena argitaratu eta bi hilabeteko epean. Epe hori igarota, Udalak jaso ez diren lanak suntsitzen ahalko ditu, betiere ebazpenaren kontrako errekurtsorik aurkeztu ez bada.

6.- EPAIMAHAIA.-

Epaimahaia Iruñeko Udalak izendatuko du, eta honako hauek osatuko dute:

- Epaimahaiburua: Gizartean eta berrikuntzaren arloan prestigio handia duen pertsona bat, Iruñeko Udaleko Demokrazia Parte-hartzailearen Tokiko Behatokiak berretsia.
- Epaimahaikideak:

Hezkuntzako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako Alorreko zuzendaria.
Hezkuntzako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako Alorreko koordinatzailea.
Iruñeko Udaleko Gobernu Estrategikoko, Hirigintzako, Etxebizitzako eta 2030 Agendako Alorrak edo gizarte-berrikuntzari lotutako beste udal-alor batek izendatutako pertsona bat.

- Idazkaria: Hezkuntzako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako Alorreko herritarren partaidetzako teknikari bat.

Epaimahaiaren osaera sariaren epaia ematen denean emanen da jakitera.
Lehiaketaren epaimahaia kide anitzeko organoa izanen da, eta, oinarri hauetan berariaz aurreikusten ez den oro, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15.etik 18.era bitarteko artikuluetan kide anitzeko organoei buruz jasotako xedapenek arautuko dute, bai eta, hala badagokio, aplikatzekoak diren gainerako arauek ere.

Epaimahaiak hautagaitzak ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen dituen argibideak eskatzen ahal dizkie parte hartzen duten erakundeei edo taldeei, baita horiei *in situ* bisitak egin ere.
Epaimahaiak egoki jotzen badu, txostenak eskatzen ahalko ditu, baita aholkulari teknikoak epaimahaian sartu ere.

Epaimahaiak saria emateko proposamena eginen dio organo eskudunari, eta hark horren gainean ebatziko du. Modalitate guztietan, edozein sari eman gabe uzten ahalko da, baldin eta epaimahaiaren iritziz ezein lanek ez badu behar adinako meriturik edo kalitaterik.

Epaimahaiak accesiten bat proposatzeko aukera: ☒ BAI ☐ EZ

7. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.-

Iruñeko Udalak du ardura botere publikoez baliatuz dirulaguntza kudeatzeko eta saria emateko xedez erabiliko diren datu pertsonalen gainean. Ez da daturik lagako, legeak hala aginduta izan ezik. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira–, horiek ezabatzeko eta bestelako eskubideak gauzatzeko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria www.pamplona.es/eu webgunean kontsultatzen ahal dituzu.

Sari-banaketaren irudiak Udalaren webgune korporatiboan eta sare sozialetan argitaratzen ahalko dira, eta hainbat komunikabidek zabaltzen ahalko dituzte.

8.- EBATZI ETA JAKINARAZTEKO EPEA.-

Ebatzi eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izanen da, gehienez ere. Epea deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hortik aitzina hasiko da kontatzen.

Instrukzio-organoa dirulaguntza hau kudeatzen duen alorreko idazkaritza teknikoa izanen da.

Sariak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoarekin bat.

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: ☒ BAI ☐ EZ

Baiezkoa bada, non argitaratu:

Epaimahaiak erabakia hartzen duen egun berean jakinaraziko die saridunei.
Iruñeko Udalaren webgunean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, orok jakin dezan.

Saria ekitaldi publiko bakarrean eman eta ezagutaraziko da. Hezkuntzako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako Alorrak 2026ko azken hiruhilekoan antolatuko du ekitaldia, eta gonbidatuta egonen dira hala epaimahaiko kideak nola sarietara aurkeztutako erakunde guztiak.

9.- KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK.-

Saria emateko deliberazioetan, epaimahaiak gizarte-berrikuntza ebaluatzeko HELIX tresnak proposatzen dituen balorazio-irizpideak aplikatuko ditu. Esteka honetan eskuragarri daude:

https://www.navarra.es/documents/48192/19711812/HELIX_final.pdf/dc280ae3-0a81-8876-709c-62b8b90813ad?t=1665475155620

- **Berrikuntza: proiektuaren berrikuntza-maila baloratuko da. Berrikuntza mota desberdinak baloratuko dira.**
- **Eragina: proiektuarekin lortzen den gizarte-eragina aintzat hartuko da. Eragin-tipologia desberdinak aintzat hartuko dira.**
- **Aldaketa sistemikoa: ekosisteman sortzen duten gizarte-eraldaketa eta egiturazko aldaketa baloratuko dira, baita berrikuntzaren iraunkortasuna ere.**
- **Partaidetza: aintzat hartuko da parte hartzeko eta ahalduntzeko gizarte-prozesua, eta proiektua garatzeko fase guztietan eragile guztien ikuspegiak aintzat hartzea.**
- **Sendotasuna: proiektuaren alderdi hauek baloratuko dira: zehaztasun metodologikoa; proiektuaren azalpenaren kalitatea; egokitasuna eta koherentzia teknikoa.**

10.- ERREKURTSOAK.-

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar beren lanekin parte hartzen dutenek oinarriak onestea eta horiei men egitea.

Lehiaketa hau garatzean eta oinarri hauen interpretazioaren inguruan sortzen ahal diren gatazkak organo emaileak ebatziko ditu.

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko hartzen ahal diren administrazio-ebazpenen aurka errekurtso hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertzeko errekurtsoa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.

- Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Iruñeko Auzialdiko Auzitegiko administrazioarekiko auzien atalari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.